

PUBLIKOA, 1979TIK

Baliteke Iruñeko Udal Ikastola Euskal Herriko ikastola publiko zaharrena izatea, 1979an hasi baitzen eskolak ematen

Iako haurrek, aurpegia margo-tuta izateaz gainera, manifestazio baterako deialdia eramaten dutela eskuetan».

Izan ere, hasierako urteetan, ikastolako haurrek ia denbora gehiago ematen zuten mobilizazioetan eskolan baino. Edo bietan batera izaten ziren, Gazteluko plazan hainbat egunetan eskolak hartzen egon zirenean bezala. Eta 1981eko otsailean, ikastolako gurasoek, irakasleek eta haurrek Arrosadiko Fuerte Principe ikastetxea okupatu zuten; gerora Hegoalde ikastola izanen zena. Poliziak aterarazi zituen. Baina berriz sartu ziren. Eta han gelditu ziren, betiko.

Hainbat urtetan, lokal falta izan zen ikastolaren arazo nagusia. Haurrak leku batetik bertze-
ra mugitzen zituzten. Konparazio batera, Udal Ikastolan estudiantu duen haur batek, lasai asko Iruñeko borts zentro zapaldu ditu: Donibaneko haur eskolako etxabea; Antsoingo barra-koiak; Misericordia zahar etxe-ko *ikasgelak*; Fiteroko ikastetxe estu eta luzea; eta, azkenik, ikastolarendako propio eginiko Amaiur ikastetxea.

Amaiur 1986an eraiki zuten, ikastola ofizializatu eta hiru urtera. Apur bat geroago, Txantreako San Benito ikastetxea Axular ikastola bilakatu zuten. Horrekin, hiru izanen ziren Udal Ikastolaren zentro propioak: Hegoalde, Amaiur eta Axular.

Lekualdatzeengatik kezkatuta

Akaso, etengabeko lekualdatze horrengatik eskatu zien barkamena Gotzone Isiegasek bere alabei. Edota baliabide gutxi izateagatik. Edota ikaslibururik ez erabiltzeagatik. Edota borrokatan hagitz sartuak egoteagatik, haurren hezkuntza «bigarren mailan» uzteagatik. Guraso askoren usteak dira horiek, eta horrengatik, ahotsa dardar batean, ia negarretan, barkamena eskatu zien Isiegasek bere alabei.

Baina mahai inguru hartan ikasle ohiek argi utzi zuten, gurasoek ez dute zertan barkamenik eskatu. Haurrak zirenean, baldintzarik eskasenetan egonagatik ere, hagitz ongi pasatu baitzuten, edozein haurrek egiten duen gisara.

Sortu zenetik, 4.000 ikaslek baino gehiagok ikasi dute Iruñeko Udal Ikastolan. Laster, ikastolak *Udal* deitura galduko du, Nafarroako Gobernuaren eskuetara pasatuko baita.

EZKER ABERTZALEKO EMAKUMEAK. 250 emakumek batzarra egin zuten atzo Altsasun

Erredakzioa | DONOSTIA

Ezker Abertzaleko emakumeen bigarren Nazio Batzarra egin zuten, atzo, Altsasun (Nafarroa), eta bertan bildutakoek hiru konpromiso hartu zituzten «Ezker Abertzale feministarantz pauso berri bat emateko». 30 eskualde inguruko 250 emakume elkartu ziren, eta konpromisoa Ezker Abertzaleko erakunde eta militante guztiek hartu beharrekoa dela ondorioztatu zuten.

«Ezker Abertzaleko erakundeek bat egin behar dute erabakitako oinarri ideologiko feministekin, eta Euskal Herri feministak eraikitze konpromisoa betetzen dela ziurtatzeko, nork bere estrategia feministak prak-

«Erakundeek bat egin behar dute oinarri ideologiko feministekin»

Ezker Abertzale feministarantz joateko, hiru konpromiso hartu dituzte batzarrean

tikoa zehaztu eta landu behar du», esan zuten.

Hala, barne plana egin dute «Ezker Abertzale barnean dau-

den desoreka eta kontraesanak gainditzeko», eta konpromisoak hartu dituzte barne plan hori bermez landu ahal izateko. Ho-

ESPAINIAKO ZIGOR KODEAREN ERREFORMA

Larraitx Ugarte Zubizarreta ■ Abokatua eta legelaria

Kartzela gehiago?

erreforma honek Espainiako Estatuak bere buruari ezarritako printzipioak eta helburuak betetzen ohi dituen azter dezakegu, hau da, bere buruari ezarritako marko juridiko-moralari erantzuten dion edo ez. Erantzuna argia da: ez. Espainiako legeriak bere buruari aurrezagutzen dion zigortzeko eskubidearen baitan, kartzelaren erabilera barne, helburutzat finkatzen ditu gaizkilearen zigorra, biktimaren erretribuzioa eta gaizkilearen bergizareratzea. Kartzelen inguruko legeriak eta Konstituzioak berak aurreikusten dute kartzelaren funtzioa gaizkilea bergizareratzea dela.

Baina zein bergizarteratze helburu betetzea espero daiteke jendea 40 urterako espetxeratu nahi denean? Zein bergizarteratze, lanean ari den jendea asteburuko atzipenaldi zigorren ordeztu hilabete batzuetarako kartzelatzen denean? 3. graduaren aplikazioa, presoaren bergizarteratza zuzendutako neurria, izugarri mugatzen denean? Delitu eta falta egileak gizartetik aldenduz eta kartzelatu berriro gizartean txertatu nahi direla baieztatzeak paradoxa dirudi. Kartzela gehiago da arazoaren parte arazoaren konponbide baino. Kartzelak jendea baztertzeko elementuak dira, kalean bazterketa pairatu behar izan duten kolektibo horiek guztiek gizartetik are gehiago baztertu eta kaleratzerakoan aurretiaz bizi zuten bazterketa egoerara bueltatzeko gertoki ilunak.

Zer dago gertoki ilun hauetan, ordea? Espainiak Europako Batasuneko bigarren kartzelatze tasarik handiena dauka Britainia Handiaren ondoren, ehun mila biztanleko

114 kartzelaturekin. Egun, Barne Ministerioko aste honetako datuen arabera, 51.878 preso daude 77 kartzelatan banatuak. Eskala txiki-ko droga trafikarekin eta jabetza pribatuaren aurkako delituekin zirikusia izateagatik daude preso gehienak (%66,3). Delitu motarekin ez ezik, hainbat gizarte kolektiboren kriminalizazioa ere nabaria da. Ijitoak esaterako, populazio orokorrean %1,4 besterik ez badira ere, kartzelatan %25 osatzen dute. Atzeritarrek ere jazarpen handia jasaten dutela frogatzen du preso-
en %30 izateak. Emakume kartzelatuen portzentajea ere oso handia da, %8-9 (Europar, aldiz, %4 ingurukoa). Preso politikoen kopuruaren gorakada eta euren kartzela zigorren gogortze progresiboak ere ezagutzen ditugu jada.

Egoera errepresiboa itzela da gaur egun ere, baina Espainiako Gobernuak ez du nahikoa. Kartzela gehiago eraiki, jende gehiago kartzelatu eta denbora luzeagoan eduk nahi ditu kartzelan. Etorkizuna aurreikus dezakegu: pobrezian bizi den jende gehiago, euskal independentista gehiago, ijito gehiago joango da kartzelara. Eta laster, Britainia Handiari harro esanen diote espainiarrek Europako Batasunean badirela zerbaitetan lehenak, kartzelatu kopuruan, alegia. Bai, ze hiri segurtasunean lehenak izango al dira? Kartzela gehiagok, zigor luzeagoek, errepresio eta kontrol gehiagok, bilatzen duten eragin-kortasuna lortuko al dute?

Honatz bigarren galdera. Batez ere, irailaren 11ko gertaeren ondortik, Bushen aitzindaritzapean, hainbat herrialdek hiritarren segur-

nakoak dira konpromisoak: barne planaren izaera integrarlari erantzunez, proposatzen diren eremu guztietan aldaketak bultzatzea; barne planaren garapena ziurtatzeko, bitarteko guztiak martxan jartzea, barne mailakoak zein espezifikokoak; eta, azkenik, barne plan horren koordinazio eta dinamizazioa ziurtatuko duen lan talde berezia sortzea eta, horrekin batera, talde horri babesa emango dio sare feministak eratzea.

Atzoko batzarrean kezka ere agertu zuten, egungo egoera politikoan horrelako prozesu bat aurrera eramateak izan ditzakeen zailtasunez, baina egungo egoera gaindituko duen prozesua izan behar delakoan daude.

tasunaren aldeko diskurtsoak abiatu dituzte, hiritarrongan kalean ibiltzeko izua eragin nahian, bide batez, estatuentzat gatazkatsu eta *arriskutsu* diren gizarte sektore zabalen aurkako gurutzadei ekinez. Botereak esku artean darabilen ekuazioa sinplea da: kaleak elementu arriskutsuz eta gaizkilez garbituz gero, denak kartzelatu gero, kalean lasai ibiliko gara. Baina hori ez da egia. Kartzela gehiagok, errepresio gehiagok, ez dute automatikoki delitu tasa jaitsiko, orain arte norabide honetan estatuek egin dituzten lege aldaketek frogatzen duten bezala. Espainiako Estatuan, azken 30 urteetan preso kopurua laukoiztu egin da, eta 1990etik 17.000 preso gehiago daude. 1996an igo zen PP gobernura, eta ordudanik sei mila preso gehiago daude Espainian. Halere, Europako gainontzeko estatuetan kriminalitate tasa jaisten ari den bitartean (Alemanian %6,1 edota Italian %2,7a esaterako), Espainian %9,5a igo da. Argi ikus dezakegu, beraz, preso gehiago egoteak ez duela delitu kopuruaren jaitsiera eragin. Eraginkortasun falta frogatzeko beste datu bat: egungo espetxe populazioaren %60 inguruk espetxetik irten eta berriro egiten dute delituen bat.

Delituen proportzioa ez doa kartzela proportzioarekin lotuta, beraz, eta kartzelak delitu egileak bergizarteratzeko balio ez duela ondorioztatu dugu. Argi dago delituan beste motatako faktoreek eragiten dutela, politiko, ekonomiko eta sozialek batik bat, eta hauek bere horretan dirauten bitartean ez dela delitu kopurua jaitsiko. Konponbideak ez dira zigor kodeen aldaketatik eratorriko. Politika sozial eta ekonomiko justuagoek edota gatazka politikoen konponbide demokratikoez eragingo dute delituri egin behar eza. Baina noski, hori edozein zigor kodetako artikulua batzuket aldatzea baino konplexuagoa da, eta borondatea galdatzen du. Baina oraingoz ez dago borondaterik.